

www.noaia.com

Noaia!!!



Asteburu honetan,
Auzolan Topaketak



Alazne Olaizola, Zubietako alkatea

“Lehentasuna herritarrei eman nahi diegu”

INDIBA
DEEP BEAUTY[®]
PROIONIC BODY CARE SYSTEM

**IRTEERA-ESKAITZA
BONUAK %50ean**

ZELULEN BIRSORTZEA · LIPOLISISA · MODELAKETA · ERREAFIRMAZIOA
· AZALAREN TONIFIKAZIOA · OXIGENAZIOA · HIDRATAZIOA · LIFTING

✓ ZELULITISAREN GUTXIAGOTZEA ✓ AURPEGIA GAZTETZEA ✓ ZIMURREN LEUNKETA
✓ BULARREN ERREAFIRMAZIOA ✓ SILUETAREN HOBEKUNTZA ✓ AZALAREN INDARTZEA

Jwar
ESTETIKA

BESTE TRATAMENDUAK : PRESOTERAPIA · TERMOLINEA · ELEKTROLITISIA · MASEOTERAPIA ... munalurra 2, USURBIL 943 571680

Herri osoa enteratuko da...
Zure publizitatea hemen



Kontsulta itzazu publizitate-tarteen prezioak

943 360 321 publizitatea@noava.com www.noava.com

Telemar antenas

ASTRA

ADSLa zure etxera ez delako iristen
bakartua sentitzen zara

Banda zabaleko
Internet
orain eskuragarri!

ESKAITZA
BERRIA...
INSTALAZIOA
DOAN!

kobertura %100

elkano kalea, 13 BERNANI Tthoe: 943 55 33 09
at.fernastemari@tutur.es

Albistea iruditan !!

Autorik Gabeko Egunean, autoak nagusi

Irailaren 22a Autorik Gabeko Eguna izan zen. Urtero legez, Udarregiko ikasleak kantuan eta jolasean aritu ziren kalez kale. Eta kitto. Ez zen bestelakorik izan. Ez hemen eta ez inguruko herrietan ere. Hausnarketarako eguna izan zen garai batean, baina indarra galtzen joan da azken urteotan. Autorik Gabeko Egunean ere, autoak nagusi izaten jarraitzen duelako. Sikiera, Udarregi ikastolan, egun horretan egiten den aldarrikapenari garrantzia gehiago ematen diote eta eskerrak horri. Gaur aldarrikapen hutsalak diruditenak, belaunaldi berriekin batera akaso eraginkorragoak izango baitira...



UDARREGI IKASTOLAKO IKASLEAK, BORDABERRIN KANTUAN.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publicitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldúa, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



UGAITZ AGIRRE

Udazkena iritsi da

Aupa irakurle agurgarri eta maitagarri hori (maitasun osoz eta bihotz bihotzez diotsut). Uda ondo pasako zenuelakotan, batzutan lanean, besteetan parrandan, eskuetan mojito bat duzularik eguzkia hartzen... beno hori akaso tropikalegia da. Eta orain gainean dugun krisiarekin, bueltarik ematen ez diona gainera, nola inork ez duen ezertan inbertitzen... baina hori ez dago gure esku maila handietan. Eta kurtsio berria hasten dugunez zerbait interesgarria idatziz hasi beharko dugu. Okurritzen bazaigu behintzat zerbait interesgarria, beti ez baita erraza izaten. Inspirazioa ez baita, nire kasuan behintzat nahi dudanean etortzen den zerbait. Baina horrek berdin du.

Eta gaurkoan ere askorik ez digu laguntzen inspirazio puta honek. Zer idatzi ez dakigula ordenagailuaren aurrean, denbora alferrik gastatzen. Seguru nago zerbait produktiboagoa egiten egongo nintzatekeela beste egoera batean egongo banintz. Baina gauzak diren bezala dira eta honi ere aurre egin beharko diogu, ez dezaten esan gaur egungo gazteek dena azken momenturako uzten dutela (batzutan hala izaten da bai) hasieratik aurre egin beharrean beste batek konpontzeko itxaropenarekin. Egia esan ez dut gogorik ezer idazteko. Hasierako umore sarkastiko eta ironiko hori ere amaitu zait. Balkoira aterako naiz haize apur bat hartzera eta ea inspirazio jainkotiarra iristen zaidan, bestela ez dugu ezer askorik egingo.

.....(oooooooooooooooooooooooooooo).....

Hara! Zer da hori? Hosto sikatu bat bere adartxotik erortzen? Udazkena iritsi omen da gurera ere! Zeinen ongi! Udazkenari idatziko diogu, pena merezi du eta! Gainera urtean behin iristen da

eta agurtu gabe ez dugu utziko gizarajoa. Bai Udazkenari ongi etorria egingo diogu beste behin gure Usurbilgo herrira!

Baina udazkenari ongi etorria egiteko dantzariak egon beharko dira agurra edo dantzatzeke. Eta bertsolari batzuk baita ere. Trikitilariak eta hizlari on bat. Gero ostaturen bat ere eman beharko diogu egun batzuk pasatzeko intentzioarekin etorriko baita. Norbaitek eman beharko dio aterpe bere etxean, edo bestela apai-zari esan ea han tokirik duen jubilatzean pentsatzen ari den urtarori.

Bai, egia esan katxondeo apur batekin hartzen dudak kontua da hau, nola udazkena iritsi den ba udazkenari idatziko diogu denok berak hori nahiko balu bezala.

Udazkena iritsi da eta armairuan gordeta ditugun txamarra guztiak ateratzen hasiko gara euria egiten hasten duenerako eta armairuan sartuko ditugu udako jantzi freskoak. Eta Ken Zazpik "udazken arratsaldetan..." hitzekin hasten diren kantuak konposatuko ditu eta poeta erromantiko eta kursiek beren musa bezala izendatuko dute udazkena, aurpegia zimurtzen doakion dama. Oh! Ulala!

Beno gaurkoa egin dugu, udazkena agurtu eta iraindu dugu. Baina ez ezazu era txarrean hartu, ez da zure kulpa udazkena, klimaren kulpa zu sortu zintuelako. Zu ez bazina existituko ez zen horrelakorik pasako, baina gauzak diren bezala dira eta izorratu egin beharko duzu. Beno eta bihotz-bihotzez Irratiko mahaietan Keler bat hartuz urtaro guztiak gorai patzen dituzuenoi, zuek gabe ez baitzen idatzi hau idatzi. Ostiralean edo larunbatean ospatuko dugu udazkenaren etorrera berandu bada ere.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - **Ugaitz Agirre** - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Urriaren 6an, Aralarrek deitutako bilera Udarreki ikastolan

Irailean egin zuten kongresuan, Aralarreko militanteek onartu egin zuten zuzendaritzak ekarritako ponentzia politikoa, botoen %71,75ekin. Ponentzia politikoa horretan jasotzen da hurrengo azaroaren 20ko hauteskunde-tara ezker abertzaleko beste sentsibilitatearekin, Eusko Alkartasunarekin eta Alternatibarekin koalizioan aurkeztea. Erabakiaz hitz egiteko bilera egingo da Aralar zaleekin Udarreki ikastolan urriaren 6an ostegunez, 18:30ean.

Patxi Zabaletaren hitzak ekarri nahi

ditu gogora Usurbilgo Aralarrek: "Politika bidea egiten ari den egoera berri batean gaude, eta egoera horrek bultzada berri bat ematea eskatzen du. Horixe da bake eta normalizatorako bidean dagoen gure herriaren egoerak exijitzen diguna, eta baita abagune ekonomikoak, gauden egoera ekonomiko latzean egonda Euskal Herrian dagoen ezkerreko gehiengo aurrerakoiak urrats ausartagoak ematea exijitzen digulako". Erabakiaren nondik norakoak aurkezteko eta sakontzeko bilera deitu du Aralarrek. Urriaren 6an ostegunez, 18:30ean Udarreki ikastolan.



REBEKA UBERA HURBILDUKO DA URRIAREN 6KO BILERARA.

Hizlaria Rebeka Ubera, Aralarreko idazkari nagusia eta Gipuzkoako batzarkidea izango da.

LATAILLADE **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

USURBIL AUTOAK
·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SALMENTA

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!

zerbitzu ofiziala
Zumartegi industrialdea **943 36 10 79**

Mundu bat Irrien Lagunak Klubaren egunean

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek jendea erakartzeko abilezia berezia dute. Aspaldikoa da. Ez da gauza berria. Baina igandean ikusi genuenez, Irrien Lagunak Klubak ere jarraitzaile asko ditu. Mundu bat bildu baitzen Usurbilen.

Eguerdian, frontoia eta Dema plaza txiki geratu ziren. "Ongi etorri Pupu eta Lore" saioaren azken emanaldia ikusteko irrikitan bildu ziren haurrak eta gurasoak, Euskal Herriko txoko ezberdinetatik etorritakoak. Eguzkia eta beroa izan ziren nagusi eta, arratsalde partean, Artzabalgo apar festan poz pozik ibili ziren haurrak eta gaztetxoak...



IRRIEN LAGUNAK HERRIAZ JABETU ZIREN IGANDEAN.



BERDARI ETA EGUZKIARI AURRE EGINEZ, HAURRAK PORROTXEN PUZGARRIRA IGOZTEKO ZAIN.



FRONTOIA ETA DEMA PLAZA TXIKI GERATU ZIREN "PUPU ETA LORE" IKUSKIZUNEAN.



16:00ETAKO SARI BANAKETA ASKO ATZERATU ZEN ETA UMEEK ETA GURASOEK ZAIN EGON BEHAR IZAN ZUTEN...



ARRATSALDE PARTEAN, APAR FESTA EGIN ZUTEN ARTZABALEN ETA UMEEK ASKO ESKERTU ZUTEN.

Kima
 MASAJE LEKUA
 · KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
 · KOLONAREN HIDROTERAPIA
 Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Zuen publizitatea hemen
 ☎ 943 360 321
 publizitatea@noaua.com

AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

Falta direnekin elkartasuna



Inguruko herrietan jarritako txartelek garbi adierazten dute: 2011ko San Praixku jaiak iritsi dira. Alejandro Tapia handiak egin du aurtengoan ere irudi polit askoa. Festa luzeak prestatu dituzte antolatzaileek eta eguraldia fin portatzea opa diegu, organizatzen hainbeste lan egin dutenek merezi dute eta. Gure artean gustora egongo liratekeen arren, berriz ere falta-ko direnak ez ditugu ahaztuko. Xabier Aranburuk 20 urte egin ditu guregandik aparte, nahiz eta aspaldi beharko lukeen Ongi-Etorri etxera etorrita. Jokin Errastiri ere ez zitzaizkion motzak egingo urte hauek, eta azkar etxeratzea desio diogu. Kartzelatik atera zuten arren, Patxi Segurola urruti daukate Frantziako hotel batean mugitu ezinik, ia preso bezala, Madrileramango duten mehatxua oraindik gainetik kendu gabe. Patxik ere sentituko du egun hauetan gure artean egoteko irrikia. Hirurak datorren urteko San Praixkuetan oilasko-biltzaileekin ateratzeko moduan etxean eduki nahi genituzke. Ea asmo hori bideratzen hasten den, Euskal Herrian piztu den giro politiko berriaren babesean. San Praixku hauetan gure artean egongo dira Blanka eta Maribel Bruño. Joan den udan kartzela zigorra ezarri zien Madrillgo Audientzia



Argazkia artxibokoa (Karkara)

Nazionalak, nahiz eta alde askotako partidu, talde eta pertsonalitatek esan zuten astakeria zela bi emakume hauen kontrako epaiketa. Bruño ahizpak ez dituzte berriz espetxera eramán, kondenaren parte bat aurretik hango "zuloan" pasa zutelako, baina Madrilen ez dauzkate ahaztuta: orain dela gutxi familiarekin Lourdesera joateko baimena eskatu behar izan dute. Poztuko gaitu jaietan Blanka eta Maribel Aginagan ikusteak. Ea epaiaren kontra jarri duten errekurtsioak arrazoi ematen dien eta azkenean bakean uzten dituzten. Bukatzeko, badakizue Aginagara etortzen den guztiari egiten diogula ongietorria. Beraz, azaldu San Praixkuetan eta gozatu.

KALEBERRI

MADDI ZALDUA

Kaxkotik, agur t'erdí!



Zenbat aldiz galdetu ote zidaten txikia nintzela, zer izan nahi ote nuen handitan. Nik ordea ez neukan hain argi; batzuetan irakasle izan nahi nuen, eta idazkari bestetan. Bide luzea neukan oraindik betirako izango zen gertuko etorkizun hori, orduan aukeratu behar izateko. Nik urrunago ikusten bainuen handitan izan nahi nuena aukeratzeko momentu hura, baina uste baino lehenago iritsi zen hura ere.

Zenbat poz eta zalantza; zenbat negar eta zenbat irri aldi berean. Baina azkenean beldurrak beldur, eta zalantzak zalantza, ekin nion nik nahi nuen bide hari eta dagoeneko bide horren amaieran aurkitzen naiz orain. Ze azkar pasatzen den denbora; ni behintzat ohartu ere ez naiz egiten.

Eta orain? zer etorriko da orain? Hori da nire zalantza. Nork ez du desio ikasketekin lotura duen lanean jardutea? Nik ere hori nahi dut behintzat, eta gaur hemen nago, Kaxkotik hitz hauek zuri eskaintzen, eta aukera eman didaten honetan, ilusio handiz agurtzen zaitut irakurle; agur t'erdí!

SANTUENEA

JON ETXABE

Jai girotik errutinara

Orbelak bide ertzetan pilatzen hasiko dira. Beste urte batez, etorri bezala, Santueneako festa pasa dira jada.

Gure "San Queremos" preziatuak (Santueneako festek ez dute inolako zentzu konmemoratorik, hau da, iraileko hirugarren asteburuan izaten dira, horregatik izen bitxi hori). Urtero lez, gazteek nahiz ez hain gazteek egindako lana eskertu beharra dago.

Eguraldiak askorik lagundu ez eta euria egin arren, auzoko festek aurrera jarraitu dute eta ziur nago ez die-tela inori huts egin.

Jada egun hauek pasa direla eta, orain errutinara itzultzea egokitzen da. Goiz jaiki, berandu oheratu...

Lainoak hortzmugan elkartuko dira goizeko lehen orduetatik, eta ez digute agur esango euri zaparrada eder bat bota arte. Hotza, hezetasuna... Dudarik gabe, urtaro bikaina malenkoniatsuentzat.

Baina animo! Etorri den bezala joango da udazkena eta berriz izango gara Santueneako festetan. Eta, udazkena gustuko duzuenentzat, goza dezazuela!



KALEZAR

INMA BALDA

Kalezarko sagarrondoak



Egutegiak esan berri digu: udazkenean sartu gara! Duela gutxi, aurreko astean, bai. Datak horrela erakutsi digu. Irailaren 23a, ostirala, goizeko hamaikak pasatxoan.

Baina, gure begiak egutegiari lotu beharrean kalera irten eta ibilalditxo bat proposatzen dizuet: auzoko kaskotik abiatu eta Arratzaineraino.

Hor izango dute gure begiek zer ikusia, gozamina eta ditxa.

Naturak ez du gure egutegia ezagutzen eta berak bere erritmoak markatzen ditu.

Gure paseoan antzemango dugu Natura aspaldian udazkenean sarturik dagoela: intxaurreak, urrak eta ezkuurrak nonahi lurtean erorita.

Dagoeneko bai, zenbaitzuk jaso, lehortu eta jaten hasiak dira, ziurrenik. Haizeak botatako hostoek orbela osatzen jadanik, gure pausoak leuntzeko alfonbra goxoa eskainiz.

Eta bide bazterrean ditugun sagarrondoak historik gabe geratu zaizkigu, artean, fruituak, gorri-gorriak, adarretatik zintzilik geratu zaizkielarik.



Postal polita gure begientzat: neguko zuhaixkak dirudite gure bazterretako sagarrondoek, bola gorriko zuhaixkak, gorostia edo basarratza bailiran. Ez ote da postal hau Naturak bidaltzen digun mezu bat?

Beharbada, gaur eginiko ibilalditxo hau maizago egin beharko genuke, aldiro mezua ikusi, entzun eta jasotzeko.

Negua guk uste baino lehenago ote dator? Ea hurrengorako erantzuna jasotzen dugun! Bitartean, ondo ibili, lagunok!

ATXEGALDE

UNAI AIZPURUA

Gora ezkonberriak!!!



Larunbata, irailak 24. Egun haundia. Egun berezia. Egun markatua. Goizean goiz jaiki eta dutxara, bizarra moztu eta gosaldtu. Gelako armairura gerturatu eta hantxe dago zain. Trajea. Elegantea. Arrotza. Zirrargarria. Betiko pijama erantzi eta hortxe doa, "pinzako" galtzak, alkandora dotorea, gerriko serioa, korbata, zapata puntadunak eta "amerikana". Perfume garestia bota eta ondo orraztu. Ispilura begiratu eta hara? Nor da hau galdezka hasten naiz? Ni neu, motel, lasai, ez jarri nerbio-so. Inauteriak irailan? Maritxu Kajoi Usurbilen? "Frac" kobradoreak krisis garaian? Keba, boda batera noa, ondo jantzita joan behar den ikuskizun handira. Etxetik irten eta Bordaxora, 11:00etan hitzordua. Urrutitik trajedun asko ikusten dira? Sekretak? Taxistak? Zinemaldiko aktoreak? Aiba, kuadrilakoak... Alajaina dotore dotore, bata besteari begira! Neskak berriz traje ALAI, orrazkera berezi, makillaje pila eta "Empire State" adinako takioiak! Zein eder eta lirainak denok! Autobusa, meza, eraztunak, bazkari handia, dantzaldia, kubataren bat edo beste eta biharamuneko gosaria ere betikoa, oso nutritiboak, spidifen eta aspirina tortila eder bat! Zorionik beroenak zuei, Uxue eta Gorka, gora ezkonberriak!

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Hego haize kontuak

Uda umel hau bere azkenetan dago. Eta azken hauetan hego haizeek ekarri dizkigute eguraldirik onenak. Bai baratzerako -lehortuko ahal dituzte babarrunak!-, bai pasiorako eta kirolerako.



Haize hauek eraman dituzte estolderia luzatu duten errepede ondoko obrak, uda guztian traba izan ditugunak autoentzako eta errepede ondoko baratzetan. Bejondeiela!

Laster ditugu hurrengo ospakizunak: urriaren 8an Duatloia eta urriaren 12an Euskal Jaia. Ea hauetan ere hego haizeak bere lana egiten duen! Bestalde, bietan behar da laguntza, beraz, animatu zaitzete eta hurbildu. Gogoan izan urriaren 12ko bazkarirako izena aldeztu aurretik eman behar dela.

Gurean, bestetik, oilo bat eraman du azeriak uda honetan. Bere parte mika bikote batek jaso du. Eta orain bost mika ditugu etxearen bueltan - Kooperatibako pentsuek badute indarra!-. Baina hobe dute mitek azkar alde egitea, hego haize hauek ekartzen duten tiro zaparradatik urruti. Ikusten duzuenek kronika kaskarina: haize honi dagokiona.

Asteburu honetan, Auzolan Topaketan lehen jardunaldia

Asteburu honetan, Auzolan Topaketan lehen edizioa burutuko da Usurbilen. Besteak beste, duela urte eta erditik abian den Auzolan egitasmoa aurkezteko baliatuko da ekimena. Helburua hain zuzen honakoa da, "egungo gizarte ereduak gure beharrianak asetzen ez dituela eta jendartearen bizi-baldintzak geroz eta kaskarragoak direla ikusirik, bestelako eredu baten alde hemen eta orain lanean hastea".

Udalerrietan Auzolan Taldeak eta Proiektuak abiatzea dinamizatzen duen Koordinazio eta Lankidetzeta Foro bat da Auzolan.

AUZOLAN KOLEKTIBOA

"Gure ingurua eta etorkizuna ber-eratzeari ekiteko deia egiten dugu"

Antolatu duten lehen ekimen honen bidez, euren esanetan, "harreman eta elkarlan sare bat eratu nahi genuke; bai indarrean dauden ekimenak ezagutarazi eta bultzatzeko, eta baita dinamika berriak sustatzeko ere".

Esperientzien topagune

Jardunaldiotan parte hartzeko egiten ari diren deialdia Euskal Herri mailakoa da. Antolakuntzatik gogorarazten dutenez, Euskal Herrian "abian diren ekimenen eta horien esperientzien topagune izan nahi dute; horiek ezagutuz eta ezagutzak parte-



OSTIRALEAN, ARRATSALDEKO 16:00ETAN HASIKO DIRA TOPAKETAK.

katzu, hausnarketa eta lan-ildoak abiarazteko".

Parte hartzeko gonbita beraz, luzatua dute. "Aldaketa posiblea delako, garaia delako, eta eraldaketa gure esku dagoelako, herritarrok gure bizimodua, gure ingurua eta etorkizuna ber-eratzeari ekiteko deia egiten dugu. Auzolana beharrezkoa da", adierazi dute antolakuntzatik.

Kiroldegia, lotarako

Hiru egunez, denetariko gaiak jorratuko dituzten tailer eta biltzarrak burutuko dira Usurbilen. Euskaraz, nahiz itzulpen bidez aurkezpenak ulertzeko aukera egon.

Hitzordu hauetaz haratago, otorduak eskainiko dira, Kiroldegian lo egin ahal izango da, komun, dutxa eta gainerako zerbitzuekin. Hasiera batean, 400 lagunentzako lekua egongo da. Auzolan Topaketetan izen emateko auzolan.info web orrialdera jo behar da. Besteak beste, 30 euroko bonoa eskura daiteke. Informazio gehiago: auzolan.info.

Auzolan Topaketak

Irailak 30, ostirala

16:00 Inaugurazioa.
16:30 Krisi globala.
17:30 Herri garapena.
18:30 Kooperatiba Integral Katalana.


Urriak 1, larunbata

Goizean zehar hainbat tailer:
09:30 1 Ura eta lurraldea. 2 Elikadura. Elikagai-subiranotasuna. 3 Kultura. 4 Energia. 5 Hezkuntza. 6 Etxebizitza. 7 Oinarrizko beharrrak.
11:30 8 Euskalgintza. 9 Herri festak. 10 Hacktibismoa eta tresna telematikoak. 11 Hondakinak. 12 Osasuna. 13 Ipar-Hegoa sarea. 14 Desazkundera eta komunala.
14:00 Bazkaria.
16:00 Biltzarra: Ekonomia alternatiboa. Tokiko txanponak.
17:30 Biltzarra: Tokiko Batzarrak.

Urriak 2, igandea

Goizean zehar, biltzarrak:
11:00 "Auzolanaren kultura" liburuaren aurkezpena.
12:00 Euskal Herriko Herrien Auzolan Sarea. Atxikipen-adierazpena.
13:00 Ondorioak eta Auzolan II. Topaketan iragarpena.
14:00 Agurra eta bukaera. Antolatzailea: Auzolan Elkarte.

Aldaketa garaia



EREDU HAU SUSTATU NAHI DUTE AUZOLAN TOPAKETEN ERAGILEEK.

Gabi Valin, Auzolaneko kidea

“Kontzientzia hartzen ari gara garai aldaketa batean gaudela”

NOAUA! Auzolan egitasmoa nondik abiatzen da?

Gabi Valin. Lehen bilerak duela pare bat urte egin ziren, konpromiso sozial eta politikoa genuen hainbat pertsonen artean. Une honetan bizitzen ari garena, kapitalismo globalaren porrota dela uste dugu. Gainera, egoera okertuko da. Auzolan proiektuan, kontzientzia hartzen ari gara garai aldaketa batean gaudela.

GABI VALIN

“Bilera egitura zabala eta asanblearioa dute jardunaldiok. Topaketa hauek urtero errepikatzeko asmoa dugu”

N. Krisia aldaketarako aukera moduan ikusten duzue. Zein da zuen planteamendua?

G. V. Jendeak jada konfiantza gutxi du eredu sozial eta ekonomiko honetan. Zerbait berria bilatzeko beharra dago. Alde horretatik, Auzolan, esploratu beharreko bide bat da. Auzolan proiektuan, kontzientzia hartzen ari gara garai aldaketa batean gaudela, eta gainera, herri batekoak garela. Eredu kultural bat garatzen eta eboluzionatzen joan den herri batekoak. Aipatu balore eredugarriak izan dira, berdintasuna, elkar laguntza, auzolana. Ideia sinplea da; garai aldaketa baten aurrean gaudela kontziente bagara, nola moldatzen ditugu gure balore propioak garai berri honetara. Geure ikuspuntutik, garapen lokal komunitarioa, auzolan eta batzarrak lirarteke. Sistema honen bidez demokrazian sakontzen dugu. Antzinako baloreak hartu, eguneratu eta egokitzen ditugu. Eredu kultural hau oso garrantzitsua da guretzat proiektu honetan.

N. Orain arte zer nolako ibilbidea jorratu du Auzolanek?

G. V. Jaiotza oso sinplea izan zen. Ideia hauek partekatzen genituen lagun talde bat bildu ginen. Geure arteko elkarriketatik haratago, lanean serio hasteko beharra ikusi genuen. Hainbat dokumentu lantzen eta arrazoi desberdinengatik bidean aurkitu dugun jende desberdinarekin

kontaktatzen hasi ginen. Une honetan, datu base bat dugu, proiektuarekin loturiko berrehun bat pertsonekin. Eman beharreko pausoak adosten joateko bilkurak egin ditugu. Prozesu horretan, Euskal Herriko auzolan kultura jasoko lukeen liburua egiteko ideia sortu zen.

N. Datozen jardunaldiotan aurkeztuko dena?

G. V. Bai. Txalaparta editorialarekin batera kaleratu dugu. Liburuak kultur eredu ebolutibo hori garai bakoitzera nola joan den egokitzen azaltzen du. Auzolan proiektua ez da teoria hutsean geratzen, praktikara doa.

N. Usurbilgo topaketetan, hausnarketak eta esperientzien elkartrukea bultzatu nahi duzue?

G. V. Bilera egitura zabala eta asanblearioa dute jardunaldiok. Topaketa hauek urtero errepikatzeko asmoa dugu. Hartara, urtean behin, Auzolan proiektuak martxan jarriko dituztenen arteko topaketa une batzuk izan ditzagun, udalerrietan garatzen ari diren esperientziak partekatzeko. Euskal Herriko udalerrri bakoitza, entsegu laborategi bat izan ahal izango da. Praktika eta ebaluazio horiek partekatu ahal izango ditugu. Eta esperientzia hoberenak, gerora beste udalerrien esku jarriko dira.

N. Usurbildarrek ere parte hartuko dute antolakuntza lanetan?

G. V. Antolaketa dagokionez, usurbildarren kolaborazio maila, handia izan da, 50 lagun inguruk parte hartuko dute. Hiru egunetan, Udalaren laguntza osoa jaso dugu. Udarregi ikastolak ere lagundu digu, baita Itaya Gazte Asanbladakoek ere. Beste udal batzuen, Hernani, Lasarte-Oria eta Oiartzungoen laguntza jaso dugu. Alde horretatik babestuak sentitzen gara. Esperientzia praktikoen ikuspuntutik, Usurbilek ekarpen asko egiteko du, harro egoteko modukoa da; atez ateko bilketaren esperientzia dugu, Usurbiltzen garatzen ari den elikadura ekologikoaren inguruko egitasmoa, trukea bultzatzen duen taldea, herriko kultur taldeen mugimendua interesgarria...



LIBURU HAU AURKEZTUKO DA JARDUNALDI HAUETAN.

“Euskal Herriko auzolan sarea sortu nahi dugu”

NOAUA! Jardunaldiotan hainbat gai landuko dira. Parte hartzaileek zer ideia jasotzea nahi zenukete?

Gabi Valin. Lehen edizio honetako erronka, proiektu hau abian jartzea da. Hainbat helburu finkatu dira; Auzolan proiektua ezagutzera ematea, baita pertsonen oinarrizko beharrianak asetzea bideratuak dauden proiektu eta esperientzia zehatzak aurkeztea ere, auzolan, garapen komunitario, eta herri batzarren bidez. Talde eta proiektuak sortzea erraztu nahi dugu udalerrietan, Auzolan proiektuen Euskal Herriko udalerrien sarea sortzea nahi baitugu. Eta liburua aurkeztea. Azkenean, Auzolan proiektuaren helburua, gure oinarrizko beharrianak asetzeko estrategia berri bat gara dezakegun ikustea da. Auzolanetik egiten dugun proposamena da, eredu demokratikoan sakontzea, zehazki herri batzarrek kudeatuta, erabakiak udalerrri bakoitzeko bizilagunek hartzen dituzten.

Alazne Olaizola, Zubietako Herri Batzarreko alkatea

“Berriro ere, Herri Batzarrak herritarrengan indarra izatea nahi dugu”

Kargu hartze eguna bezala, historikotzat jo daiteke irailaren 15ean Zubietako Herri Batzarrean burutu zen bilkura. Hitzordura, Usurbilgo Udalaz gain, urte luzeetako harreman etena gaindituz, Donostiako udal ordezkariak ere bertaratu baitziren. Bileran hitz egindakoaz eta legegintzaldi hasiera nolakoa izaten ari den, horren guztia-
ren berri eman dio NOAUA!-ri, Alazne Olaizola Zubietako Herri Batzarreko alkatea.

NOAUA! 100 egun bete dituzu karguan. Legegintzaldi hasiera hau nolakoa izan da zuretzat?

Alazne Olaizola. Lehen kontaktu hartzea izan da. Herri Batzarra osatzen dugun bost kideon arteko harreman eta kontaktu hartzea. Orain, epe labur eta luzera burutu nahi ditugun proiektu edo asmoak finkatzen joango gara.

N. Bada horien artean, esku artean izan eta gauzatzen hastekoak zareten proiekturik?

A. O. Herritarrengana zuzendu nahi genuke lehenik, zer egiten ari garen eta zer egin nahi dugun adierazteko edo beraiei ere, zer nahiko luketen galdetzeko. Bilera eguna jarriko dugu. Epe laburrera hori nahi dugu, herritarrekin eta talde desberdinekin hitz egiten jarri, eta beraiek ia zer asmo dituzten, edo zer nahiko luketen jakitea. Herri Batzarren ia zera berenganatu nahi dugu.

N. Oro har, herritar eta erakundeen artean nabari da eta nolabaiteko urruntasuna?

A. O. Berriro ere Herri Batzarrak herritarrengan indarra izatea nahi dugu. Gauza txikiekin hasi nahi dugu. Urbanizazio plan bat egin zen, ez dago amaitua, badaude halako akats batzuk. Egunerokotasunean konpontzeko dau-



2013 ARTE ZUBIETAKO ALKATE IZANGO DA ALAZNE OLAIZOLA.

den gauzak ere hor daude. Horri eman-
go diogu lehentasuna. Datozen beste proiektuei ere jarraipena egingo diegu. Baina lehentasuna herritarrei eman nahi diegu.

ALAZNE OLAIZOLA

“Herritarrengana zuzendu nahi genuke lehenik, zer egiten ari garen eta zer egin nahi dugun adierazteko”

N. Zubietarrekin gertuko tratua izanik, honez gero bat baino gehiago hurbilduko zitzaizuen ekarpen edo proposamenak egitera?

A. O. Eskertzekoa da. Entzuteko gaude, eta ikusten da. Kaleko proposamenak izan ohi dira. Kalekoa mantenduta, herritarrek hona gerturatzea nahiko genuke, Alamandegiko Herri Batzarren egoitzara. Etor daitezela, euren eskaerak luzatzera edo bestela proposamenak utz ditzatela postontzian. Eurei entzuteko gaude.

N. Kargu hartze eguna historikotzat jo zenuten, lehen aldiz, Donostiako udal ordezkariak bertaratu baitzen. Bi erakundeen arteko harremanei dagokienean aro berri bat hasi dela esan liteke?

A. O. Egun hura guretzat berezia, historikoa izan zen, Donostia aldetik Zubietara entzutera etortzea. Usurbilgo Udaleko alkatea beti etorri izan da, ez da arazorik egon.

Baina badakigu Donostia aldetik ateak nahiko itxiak egon direla. Beraien aldetik ere jaso genuen, halako gonbita; deitu, esan zer nahi duzuen, entzunak eta baloratuak izango zarete. Eta hori ere eskertzekoa izan zen.

N. Donostiako ordezkariak Zubietarako aurreikusiak dauden hainbat egitasmo berrikusteko asmoa eta deszentralizatzearen aldeko jarrera erakutsi zuten. Zertan dira gaiok?

A. O. Guretzat ere, bi gai horiek abiapuntuak izan dira. Baina aspalditik eta atzetik datorren kontua da. Lan handia egina dago, aurreko Herri Batzarren aldetik. Horri helduko diogu eta horretan gabilta.

“Donostiako Udalak jarrera positiboa izan zuen”

NOAUA! Ideiok lehengo asteko bileran ere islatuko ziren. Bilera historikoa, Usurbil, Zubieta eta Donostiako ordezkariak bateratu zituen?

Alazne Olaizola. Izendapen egunean guk gonbita luzatu genien, hona etortzeko, ezagutzeko, eta beraiek ere esan ziguten, deituak zirenean etorriko zirela. Eskatua genien, bisita edo hitzartu genuen eguna. Donostiako Udalak uztailan esan bezala, irailaren 15ean hemen elkartu ginen. Zubieta bi herrien arteko auzo herria denez, bi udaletxeekin egin genuen bilera.

N. Bilera horretan zer gai jorratu zenituzten? Konpromiso edo adostasun batzuetara ailegatu zineten?

A. O. Guretzat nahiko sorpresa izan zen. Batzarkideok elkartu ginen, abokatu. Etorri zen Usurbilgo Udaleko alkatea, Mertxe Aizpurua. Eta Donostiako Udaletik ere erantzun ona izan zen. Juan Karlos Izagirre alkatea, bi zinegotzi, teknikari bat eta kabineteko arduraduna etorri ziren. Beraiek ere bilera garrantzitsutzat jo zuten. Bilera horretan, taxutu ziren hemendik aurrera eman behar ziren pausoak. Bilerarako alde aurretik gai zerrenda bat pasa genien eta bai, horretan aritu ginen luze samar. Gu gustura geratu ginen. Epe luzerako eta laburrerako proiektu batzuez hitz egin zen. Herri Batzarraren izaera errekonozitu, errespetatu eta autonomia pixka bat ematea aldarrikatu genien. Autonomiarena esatean, proiektu txikiak guk planteatzeko eta aurrera eramateko trabarik ez genuela izan nahi azpimarratu genuen. Eta proiektu handietarako ere gu kontuan izatea, gurekin harremana izatea.

N. Aurrera begira, bilera gehiagotarako proposamenik atera zen? Zer nolako jarraipena izango du harreman honek?

A. O. Zubietako izaera bereziaz ere hitz egin genuen, bi udalerrien artean banatua baitago. Etorkizunerako, konponbidetarako edo bateratzea gauzatzeko bide desberdinak aipatu ziren. Ideia horiek jorratu eta egokiena dena aurrera eramatekoan geratu ginen. Donostiako Udalak



IRAILAREN 15EAN ELKARTU ZIREN ZUBIETA, DONOSTIA ETA USURBILGO UDAL ORDEZKARIAK ZUBIETAN.

jarrera positiboa izan zuen, deszentralizatzearen alde dago. Bidea hasi egin dugu eta jarraituko diogu.

ALAZNE OLAIZOLA

“Kultura, kirola, guraso elkarte... Horri jarraitu behar zaio, horrek mantentzen du Zubieta bizirik”

N. Deszentralizatzea eta autonomia handiagoa aldarrikatzen duzue. Zuen egunerokoan, bi udalerrien artean banatuta egoteak zer suposatzen du?

A. O. Deszentralizatzearekin lortu nahi duguna da, jendea gauzak eskatzera hona etortzea, eta guk gero udaletxetara bidertzea. Bi udalerriekin, zerbitzuak desberdin banatuak daude. Guk ere jakin egin behar dugu, zerbitzu bakoitza nori eskatu. Eta herritarrak ere hala dabiltzala pentsatzen dut. Usurbilen erroldatua dagoenak, Usurbila jotzen du, Donostian erroldatua dagoenak, Donostiara. Baina obra handi bat dagoenean noren ardura da? Zer udaletxek eman du baimena? Norengana jo kezatzera? Nork egingo dit kasu? Hori guztia hemen zentratzea lortu nahi dugu.

N. Zubietan ekimen eta kultur ekitaldiekin, bada mugimendua azken aldian?

A. O. Ikusten da. Zubietan bada mugimendua, kultura, kirola, guraso elkarteak... Orain duatloi proba dugu eta bada-kigu jendeak erantzungo duela. Egunero ikusten da, parkean eta dagoen giro eta mugimendua. Horri jarraitu behar zaio, horrek mantentzen du Zubieta bizirik.

Kartzela, industrialdea, etxebizitzak, erraustegia...

NOAUA! Hauteskundearen ostean, Gipuzkoara aldaketa etorri da. Errauste plantarekin zer gertatuko da orain? Moratoria aplikatetik gertuago gaudela esan liteke?

Alazne Olaizola. Duela bi asteko bileran jorratu genuen hirugarren gaia izan zen, ez bakarrik ordea erraustegiaren kontua. Zubietan Plan Orokorren proiektu desberdinak kokatu ditu. Lau proiektu handi daudela ikusten dugu; erraustegia, ia miloi bat metro karratu okupatzen dituen poligono industrialia, kartzela eta etxebizitzak. Etxebizitzetarako, Donostiako Udalak Plan Orokorrean aurreikusitako zeudenak ez zituztela eraikiko esan zuten, gehiegi zela ikusten baitzuten. Beste proiektu handiak aztertzen ari direla esan zuten. Herri Batzar bezala, Plan Orokorrean Zubietari begira dauden proiektu guztien aurka gaudela esan genien.

Interneten ere aurkituko gaituzu NOAUA! Usurbildarron zerbitzura

twitter
<http://twitter.com/noaua>

facebook
<http://www.facebook.com/noaua>

YouTube
<http://www.youtube.com/noauatb>

Noaua!!
<http://www.noaua.com>

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

- NOAUA! •Udaletxea •Kiroldedia
- Saizar •Aliprox •Aginagako Arrate taberna
- Zubietako Alamandegi taberna

Tren eta autobus

ordutegia 11/12

Noaua!!
www.noaua.com

Argazki Lehiaketa antolatu du Andatza Mendizale Elkartek

Andatzako txokoak izeneko argazki lehiaketa antolatu du estreinakoz, Andatza Mendizale Elkartek. Ekimena irekia da, edonori zuzendua dago. Parte hartzeko baldintza bakarra honakoa da: argazkiek Andatza ateratakoak izan beharko dute. Parte hartzeko epea, azaroaren 16ko arratsaldeko 20:00ak arte irekia egongo da. Ekimenerako osatu den epaimahaiak bere erabakia abenduan ospatuko den Mendi Astearen baitan emango du. Gainera egun horietan, Andatzakoek hogeitaz argazki onenak Sutegiko aretoan erakusgai jarriko dituzte. Hiru sari banatuko dituzte, 100 euro, 75 euro eta 50 eurokoak hurrenez hurren.

Txapelketan parte hartzeko asmotan dabilenak adi ohar hauei; argazki bakar bat aurkeztu ahal izango du 20X30 zmtakoa.

Tolestu gabeko kartazal itxi baten barruan, Andatzako en egoitzan utzi



ABENDUKO MENDI ASTEAN
EMANGO DIRA SARIAK EZAGUTZERA.

beharko du (ostegunero, 19:00-20:00 artean), edo bestela, Sutegi udal liburutegiko harreraren, "I. Argazki Lehiaketa" adieraziz. Argazkiaren atzealdean izenburua jarriko da.

Beste kartazal itxi batean, kanpoko aldean, izenburu bera jarriko da, eta barruan egilearen izen-abizenak eta telefono zenbakia.

Informazio gehiago: www.andatza.com

Ingeles ikastaroak Udarregin

Klase orduz kanpo ingelesa ikasreko aukera egongo da Udarregi ikastolan, Play & Say-ren eskutik. Batetik, *Txikirritmo* izeneko ikastaroa antolatu dute Haur Hezkuntzako ikasleentzat. Psikomotrizitatea lantzeko aukera egongo da bertan. Lehen Hezkuntzakoentzat aldiz, "ingeles ludikoa". Ingelesa, jolas, kantu eta antzerkiaren bidez ikasteko aukera izango da. Izen ematea zabalik dago. Informazio gehiago: 943 469 373.

Kinto-afariak

Datorren urriaren 9rako 1946. urtean jaiotako kinto bazkaria antolatu dute, Antxetan. Irailaren 30a baino lehen eman behar da izena, Laurok liburu dendan. Edo telefonoz: 943 363 448.

Astebete beranduago, urriaren 15rako kinto-afaria antolatu dute 1955. urtean jaio zirenentzat, Antxetan. Izena aldeztu aurretik eman behar da, urriaren 7a baino lehen: 675 717 020 (Miguel Angel Martin) edo 943 366 460 (Imanol Aranburu).

Bi ikastaro antolatu ditu Aginagako

Antxomolantxa elkarteak

"Say&Play" ingeles tailerrak

Hasiera: urriak 3 astelehena

Ordutegia: 3-6 urte bitartekoak,
astelehenetan: 17:00/18:00.

7-11 urte bitartekoak,
astelehenetan: 18:00/19:30.

Izena emateko: 650 692 458.

Haurrek jolas, kantu eta antzerkiaren bitartez ingelesez hitz egiteko aukera izango dute.

Helduentzako Informatika

Hasiera: urriak 5 asteazkena

Ordutegia: 18:30-20:00,
asteazken eta ostiraletan.

Izena emateko: 600 484 948.

Izen-emate gehiegi izango balira, beste talde bat osatzeko aukera dago.

Ikastaroak Santuenea

Kultur Elkartearen eskutik

Yoga, tai-chi edota jostun ezagutzak jaso nahi dituenak, aukera polita du Santuenean. Urriaren hasiko dira ikastaroak. Informazio gehiago: 695 774 951.

Yoga: asteartea eta osteguna.

Ordua: 16:00 eta 20:30.

Tai Chi: asteazkena. Ordua: 20:00.

Josketa: asteazkena. Ordua: 16:30.

Igande honetan, Gure Pakearen omenaldia

Urriaren 2arekin, aurten 80 urte betetzen dituzten herritarrak omenduko ditu Gure Pakea elkarteak. Lehenbizi 12:00etan hil direnez oroitzeko meza izango da, eta 14:00etan bazkaria antolatu dute Atxega jatetxean. Bazkarian izena emateko epea irailaren 22an amaitu zen.

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

URDAINTZI

eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

izAgirre

ELEKTRIZITATEA

943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

TAXI 24h

Jose Etxabe USURBIL

677 37 34 66
943 36 21 78

Kalitatearen aldeko apustua egin nahi du Usurbil FT-k, hasi berri den denboraldirako

Harane futbol zelaia, egunerokora itzuli da. Iraila helztearekin batera, futbol taldeak entrenatzen eta lehen neurketak jokatzen hasi dira. Abian dute kirol urte berria eta 2011-2012 denboraldi honetarako Usurbil F.T.-koek prest dituzte jokalaritza taldeak. Zazpi guztira, Futbol Eskolarekin batera.

Azken hiru urteotan ia bikoiztu egin da Usurbil F.T. barruan biltzen den kirolari kopurua. Egun, ia berrehun bat usurbildar herriko kamisetarekin jokatzen dabilta. "Osasuntsu dugu Usurbil F.T.", adierazi dute zuzendaritzatik. Hasi berri den denboraldiari aldaketekin ekingo dio zuzendaritzak. Bai futbol taldeetan, baina baita barruko antolaketa lanetan ere berrikuntzak txertatu dituzte. Aipatzen dutenez, lehen, "denok dena egiten genuen. Orain, kirol arloa eta arlo ekonomikoa banatu ditugu". Lan guztiak egoki bideratzeko ordea, laguntza behar dute. Interesdunek eurekin harremanetan jartzeko, futusurbil@yahoo.es helbidera idatz dezakete.

ALEBINAK ERE BAI

"Alebin federatuen mailako taldea atera da aurten, futbol katea osatzeko falta zen bakarra"

Kalitatea, iparrorratz

Hasi berri den denboraldian, kalitatearen aldeko apustua egin nahi dute Usurbil F.T.-koek, "futbolaren alorrean sakontzen hasi nahi genuke.



ZAZPI TALDE IZANGO DITU USURBIL FUTBOL TALDEAK. ETA BAITA FUTBOL ESKOLA ERE.

Entrenamenduak hobetzen". Asmook 2011-2012 kirol urterako osatu dituzten taldeetan islatuko dira. Futbol Eskola martxan jarri eta maila desberdinetako beste zazpi taldeez osaturiko ordezkariak jokatzen hasteko prest du Usurbilek.

Mutilak, maila guztietan

Jokalaritza taldeei dagokienean, bada nobedaderik. Aurreko urteetan hainbat saiakera egin ostean, oraingoan lortu dute, Usurbil FT-k alebin federatuen mailako taldea osatu du. Zuzendaritzatik poztasunez berri eman dutenez, hauxe zen hain zuzen, "Usurbil FT-n kate osoa osatzeko betetzea falta zen hutsune bakarra". Ahaleginak merezi izan die, gogorazten dutenez, "iaz atzera bota ziguten" eta. Gipuzkoako talde onenekin lehiatu-

ko dira, eta talde berria izanik, "urte zaila izango dela pentsatzen dugu". Ahal duten neurrian futbolarekin gozatzea ere bul-tzatu nahi dute.

Nesken bi talde

Alebin federatuen taldea osatzearekin batera, urtebeteko etenaldiaren ostean, nesken taldea berreskuratu du Usurbil F.T.-k. "Gogotsu daude", adierazi dute pozik zuzendaritza taldeetik. Etenaldi gehiago saihesteko, taldea egonkortu nahi dute Usurbil FT-tik. Denboraldirako nesken taldeei zuzenduriko bigarren erronka berriz, honakoa da: "mutilekin kirol kultura hori lortzen ari garen moduan, lan asko egin behar dugu beraiekin". Eguneroko lana proposatzen dute, helburua betetzeko errezeta gisa.

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

663 08 76 71 • 943 24 34 65

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Josue

igeltseritza

☎ 606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Infantil mailako nesken futbol taldea ere osatu da aurten

Nagusiekin batera, itxura guztien arabera, aurrekaririk ez duen beste talde berri bat sortzea ere lortu dute Usurbil FT-koek; infantil mailako nesken taldea hain zuzen. Aldez aurretik eginiko zenbait saiakeren emaitza izan da. "Usurbil Cup-en ikusten genituen neska batzuk, futbolerako animatuta. Iaz ere eurekin hitz egiten aritu ginen", adierazi dute futbol taldeen bilgunetik. Ikasturte hasieran ere beste saiakera egin dute, harrera ona jasota, "azkenean, 14-15 neska elkartu dira".

Behin taldea osatzea lortuta, hurrengo erronka, maila hauetan nesken ordezkaritza mantendu eta sendotzea izango da, euren esanetan, "datozenek ere herrian futboleko jokatzeko aukera izan dezaten". Baita mailaz maila, gerora kirol jarduera berean jarraitzeko modua ere. Alde horretatik, "aurten lehen harria jarri dugu".

Maila berean mutilen bi talde izango ditu Usurbil F.T.-k, bat ordea, ia ziur futbol zortzian jokatzeko. Hartara, normaltasunera itzuliko direla diote zuzendari-

tzatik, "iaz bi talde osatu ziren" eta, ezohikoa euren esanetan, Usurbil bezalako udalerrri batean.

USURBIL FT

"Denboraldi honetan,
futbol zortzian talde bat
osatuko da ziurrenik"

17-18 jokalariz, gehienak lehen urtekoak, osaturiko kadeteen taldea ere lehen ibiliko da aurten. Lana ondo egitea da planteatzen zaien helburua. "Urte zaila izango dute, bigarren urteko taldeekin jokatzeko egokituko baitzaie", adierazi dute. Halere, pozik daude jokalaritza taldeak hiru urteotan izan duen eboluzioarekin.

38 gazte Futbol Eskolan

Futbol Eskolan 38 gaztetxok eman dute izena, hamalauko talde berri batek tartetan. Kasu honetan, asmoa, "lanean segi eta hobetzen joan nahi dugu". Argibideen berri emateko arduradunak bilera burutzekoak dira laster, jokalarien gurasoekin.



FUTBOL ESKOLA ERE ANTOLATZEN DU USURBIL FT-K.

Preferente mailarako, Mikel Rotetaren fitxaketa

Gipuzkoako Kopa irabazi eta gzaiztat jotzen zuten urtea izan ostean, aurten igoera fasean sartzeko asmotan dira bestalde, jubentak, 23-24 jokalariz osaturik egongo den taldea. "Giro ona berreskuratuta, jendea ondo ari da lanean", adierazi dute zuzendaritza taldeak. Entrenatzaile taldea ere indartu dute hasi berri den kirol urterako.

Lehen bi partidak, irabazi

Prestatzaileak aipatuta, nabarmen-tzeko fitxaketa bat ere egin du Usurbil FT-k, Malagako jokalaria ohi izandako Mikel Roteta hain zuzen. Aurrerantzean, preferente mailako taldeko entrenatzailea izango da. "Ia bi hilabete daramatzate lanean eta oso pozik gaude entrenatzaile eta jokalarien lanarekin", adierazi dute zuzendaritza taldeak. Denboraldia ezin hobeto hasi dute, lehen bi neurketak irabazi baitituzte, eta ondorioz, sailkapen buruan egotera ailegatu dira. Iazko emaitzei esker bestalde, galdutako maila berreskuratu dute aurten-gorako. Horretatik, helburua, "mantentzea, maila horretan egonkortzea izango da. Urte on bat egiteko zortea badago, hobeto".

Eskubaloi partidak

URRIAK 1 LARUNBATA

Kadete neskek, Euskal Liga.

16.00h. Usurbil KE - Aiala Zarautz

Jubentil neskek, Euskal Liga.

17.30h. Usurbil KE - Aiala Zarautz

Senior mutilak, 2. nazionala.

19.00h. Atez Ate Usurbil - B. Romo

URRIAK 2 IGANDEA

Jubentil mutilak, Gipuzkoako Liga.

10.00h. Usurbil K.E. - Urola A.S.L.

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
© 943 69 68 52 · 620 800 186

Autobus Ordutegia

Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN

Table with bus schedules for Lanegunetan route, including stations like Donostia, Urbil, Usurbil, Orio, Zarautz, and Ormaiztegui.

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Table with bus schedules for Jaiegunetan route, including stations like Donostia, Urbil, Usurbil, Orio, Zarautz, and Ormaiztegui.

LARUNBAT GAURTAN

Table with bus schedules for Larunbat Gaurtan route, including stations like Donostia, Urbil, Usurbil, Orio, Zarautz, and Ormaiztegui.

LARUNBAT GAURTAN

Table with bus schedules for Larunbat Gaurtan route, including stations like Donostia, Urbil, Usurbil, Orio, Zarautz, and Ormaiztegui.

Tren Ordutegia

Table with train schedules, including stations like Zarautz, Orio, Usurbil, Donostia, and Ormaiztegui.

Ospitalera autobusak astelehenerik ostiralera (lanegunak)

Table with bus schedules for Ospitalera route, including stations like Usurbil, Zubieta, Lasarte, and Ospitaleak.

www.euskotren.es 902 54 32 10
Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN
Astelehenerik Igandera eta JAIEGUNETAN
Astelegunetan eta Udako (2012/06/18-2012/09/09)
Larunbat, igande eta Jaiegunetan

* 2011ko irailean eguneratutako ordutegiak



ASTIGARRAGA-HERNANI-LASARTE-USURBIL

Irteera Usurbil

ASTELEHEN-LARUNBATERA

Table with bus schedules for Irteera Usurbil route, including stations like Usurbil, Astigarraga, Hernani, and Lasarte.

IGANDE-JAIEGUNETAN

Table with bus schedules for Irteera Usurbil route, including stations like Usurbil, Astigarraga, Hernani, and Lasarte.

Irteera Astigarraga

ASTELEHEN-LARUNBATERA

Table with bus schedules for Irteera Astigarraga route, including stations like Astigarraga, Hernani, and Lasarte.

IGANDE-JAIEGUNETAN

Table with bus schedules for Irteera Astigarraga route, including stations like Astigarraga, Hernani, and Lasarte.

TSST autobusak ZUBIETA-LASARTE

Table with bus schedules for TSST route, including stations like Zubieta, Lasarte, and Ospitaleak.

BUS-TAXI Astelehenerik Ostiralera 630 64 35 96*

Table with bus-taxi schedules, including stations like Usurbil, Kalezar, Ibarra, and Zubieta.

Agenda!

Irailak 30 / urriak 2

- Auzolan topaketak. Informazio gehiago 8-9 orrialdeetan.

Irailak 30 ostirala

- Emakumeen Pala Txapelketako argazkiak ikusteko azken aukera kiroldegian.

Urriak 2 igandea

- Gure Pakearen omenaldia.
12:00etan meza, 14:00etan bazkaria
Atxega jauregian.

Goardiako farmaziak

Irailak 29, osteguna
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 30, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urriak 1, larunbata
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 2, igandea
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 3, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Urriak 4, asteartea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Urriak 5, asteazkena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Urriak 6, osteguna
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Urriak 7, ostirala
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 8, larunbata
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urriak 9, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

* Larunbatetan, *Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani
Telefono zenbakia: 943 336 077.

www.noaua.com webgunean 2011ko egutegia

San Praixkuetako herri eta bertso-afarietarako sarrerak salgai

Aginagako jaietan ospatuko diren bertso eta herri afarietarako sarrerak salgai jarri dituzte. Herri-afaria urriaren 1ean, larunbatarekin ospatuko da, gaueko 21:30etatik aurrera. Helduek sarrerak 20 eurotan izango dituzte salgai, 12 urtetik behe-rakoek 15 euroren truke. Sekaño jate-txean eta Arrate Zahar Egoitzan esku-ratu ahal izango dira. Bertso-afarirako sarrerak ere, Aginagako zahar etxean, baina baita Txiribogan ere erosteko aukera dago, 15 euroren truke.

Urriaren 7an, ostiralarekin ospatuko da bertso-afaria, Aginagako Eliza Zaharrean. 21:00etan hasita, Bota Punttuba bertso eskolak estreinakoz antolaturiko Udarregi Sariketaren biga-



UDARREGI SARIKETAREN BIGARREN FINALERDIA JOKATUKO DA AGINAGAN.

rren finalerdia ospatuko da. Oraingoan sei gazteek parte hartuko dute: Eneritz Zabaleta (Baiona), Aitzol Barandiaran (Ataun), Ane Labaka (Lasarte), Ainhoa Agirrezaldegi (Elgeta), Maialen Velarde (Zumaia), Imanol Lizarazu (Igeldo).

Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea

Euskal preso politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea burutuko da, iraileko azken ostiral hone-tan, hilaren 30an. Arratsaldeko 20:00etan, Mikel Laboa plazan.

Ipuin kontaketa saioa urriaren 6an, liburutegian

Lupe Lekuona ipuin-kontalariak saioa eskainiko du datorren astean. Urriaren 6an, Sutegi udal liburutegian. Euskal ipuin tradizionalak baina baita gaur egungo idazle euskaldun zein atzerritarren ipuinak ere kontatzen ditu Lekuonak. Emanaldia arratsaldeko 18:00etan hasiko da. 4 urteko haurrei zuzendua egongo da.

Urriaren 8an, mendi duatloia Zubietan

Urriaren 8an mendi duatloi proba jokatu da Zubietan, Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuituaren barruan. Zubietako Herri Bazarra arituko da antolaketa lanetan, baina berri eman dutenez, 45 boluntario beharko dira, bidegurutzeetan eta frontoi inguruan laguntzeko.

Interesdunek 678 453 148 telefono zenbakira dei dezakete.

Proba hiru zatitan banatua egongo da. Partaideek, lehenbizi 4,8 km korrika egin beharko dute, gero 13,5 km mendiko bizikleta gainean eta azkenik, beste 2,3 km korrika.

Informazio gehiago web honetan: www.mendiduatloia.com

Javier Orbeogo
·ITURGINTZA
·GASA ·BEROKUNTZA
659 602 789
Erreka-txiki 13, 3.esk USURBIL 943 37 29 37

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

ETXEBIZITZA

- Pisua alokairuan Atxegalden. 3 gela, sukaldea, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066.
- Etxebizitza bat alokatzen da Etxealdian. 2 logela, sukaldea, egongela. Eguzkitsua eta berriua. 620 565 731.
- Etxebizitza bat salgai edo alokairuan Usurbilgo erdigunean. 63,00 Metro. 2 gela, 2 komun eta sukalde-egongela. 3 urte. 639 992577
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Alfaron dudan pisua zonalde honetan etxebizitza duen norbaitekin trukatu nahiko nuke. 941 182 562.
- Usurbilen edo inguruetan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriurik. Prezioa: 251.000 euro. Telefona: 699 720 940.
- 60 metro karratuko etxea salgai Santuenea 26an. Sukalde handia, egongela, 2 logela, komuna, 2 balkoi eta 3 leiho, dena kanpokaldera ematen duena. Ganbara eta 12 metro koadro trasteroa. 185.000 euro. 666539284
- 85metro karratuko etxebizitza bat alokatzen dut Usurbilgo kaxkoan. 3 gela, bi terraza eta trasteroa. Bermea eskatuko da. 616064059 (gauetan deitu).
- Usurbilen alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
- Kaxkoan etxebizitza salgai. Hiru logeladuna, bi komun eta trasteroarekin. 685 731 792.
- 90 metro karratuko pisu bat daukagu salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta 7 metro karratuko ganbara bat. Oso eguzkitsua eta bizitzaren jarretako moduan dago. 699680265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu).
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 130.000 euro. 665 736 896 (Inaki).
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amara.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailen. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Kaxkoan etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- 38 m2-ko garaje itxia salgai, Txaramunto kalean. Tlf: 656.78.10.59
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. 669645585 edo 943365191.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarondorekin. Deitu: 943 361 463
- Nissan Almera salgai. Matrikula: SS-BG. Prezioa: 1.500, IAT (ITV) pasea du. 615 798 479.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- 50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Betei garajea, ondo zaindua. 622369646.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabiltza. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135

- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago dugu Usurbilgoa eta euskalduna izatea. Interesatuak deitu 676355635 telefonora.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitez Udaregi Ikastolako idazkarizatik izena ematera.

Lan-eskaintzak

- LHko haurteratutako klase partikularrak emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziekin eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar dut. Tlf.: 626 370 969.
- Neska euskalduna eta usurbildarra eskaintzen da, goizetan haurrak zaintzeko. Tlf.: 637 110 069.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak emateko prest. Matematika, Marrazketa... Tlf.: 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta euskaraz dakit. 943 365 079.
- Neska euskalduna eta usurbildarra eskaintzen da, goizetan haurrak zaintzeko. Tlf.: 637 110 069.
- Matematikako klase partikularrak, maila guztietan, 18 urtetako esperientzia. 646717676.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta adineko pertsonak zaintzeko, orduka edo interna moduan. Paperak ditut. 660 525 715.
- Ingeles neska natiboa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urtetik 8 urte arte klase partikularrak emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. 660041361.
- Emakume euskaldun bat eskaintzen da adineko pertsona bat zaintzeko, nahi den ordutegian. Disponibilitate osoa ordutegi aldetik, astelehenetik ostiralera. 687 348 223.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanetarako ere. 697 245 186, Idoia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
- Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziaduna eta ikasketatituluak egina pertsona helduak edo ezinduek zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendari lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- LHko irakaslea udan klase partikularrak emateko prest. 658 706 443.
- Garbiketa lanetan edo dendari moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziekin eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezikuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeke lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltsaritza lanetan aritzeko. 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo

- gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Etxeko lanak egiteko neska bat prest. 630 768 325.
- Pintore/burdinlari gisa lan egiteko prest. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. LH-tik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Txakur jaiotze berriak salgai, Aginagan, Seter Ingeles arrazakoak. 943 36 15 12. Eguerdiko 12:00tik aurrera.
- Bi hilabete bost txakur-kume gara etxe bila. Gurean ezin dute hainbeste animalia izan eta bestela txakurte-gira eramango gaituzte. Mesedez, eraman gaitzazue. Deitu 635 714 030.
- Belarririkoa galdu nuen Santixabel egunean, kaxko inguruan. Balio sentimental handia du, aurkitu baduzu, deitu telefono honetara: 687 406 209.
- 2 sofa individualak, izoki kolorekoak oparitzeko. Mari Karmen. Tlf: 653 741 932
- Kalezar auzotik txiririndula bat desagertu da. 27 zappi urte ditu, Peugeot marka, kolore zuria, emakumezko modeloa, palankazko kanbioekin koadro ondoan eta jarlekuan kokka bat dauka egin berria. Diru kompensazioa eskaintzen dut balore sentimentala handia daukalako neuretzat. Irene 675 71 72 67
- GPS Tomtom berria salgai. 600 244 126.
- Ume kapota bat jaso zuen Udaltzaingok Zubiaurrenea 2an (Otar Goxo parean). Galdu duenak Udaletxean jaso dezake.
- Akordioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Katakume bat hartuko nuke gustora baserriako. 666539284
- Masajaik ematen diut: reflexologia, siatsu, masaje orokorra... 943 365 079 deitu eta utzi zure mezua.
- Bi haur dituen familia gara eta Asturias edo Cantabrian kanpin batean dagoen mobilhome edo karabana alokatuko genuke abuzturako. 675 007 048 (Garbiñe).
- Usurbil eta inguruetan, belardiak behar dira, belarra jasotzeko. Tel: 607457004. Dani
- Umea kotxean eramateko ziurtasun aukia (10 kilotik gorakoa eta etzaten dena) erosiko nuke. Tlf: 658721427
- Kamera digital bat desagertu zitzaigun liburutegian, martxoaren 11n. Askio eskertuko da bueltatzea. 686 554 145 (Ana).
- Sukaldari bat eskaintzen da famili nahiz lagun arteko bazkariari antolatzeko eta prestatzeko exetean, elkarte gastronomikoetan..... 670 410 273.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. Interesatuta baude: 669645585 / 943365191.
- Hemengo intxaurrek salgai. 943 67 11 60.
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Informatikari naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzeran abesteko talde lokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113



Zorionak Miriam!

Irailaren 21ean 11urte egingo dituzu. Zorionak Aginagako zure eskolako lagunentz partez. Muxu handi bat.



Gure etxeko poxpolinak konturatzerako 7 urte bete dizkigu. Zorionak guapetona etxeko partetik. Noak muxu potolo bat bidaltzen dizu.

HILDAKOAK

Josefa Ugarte Zinkunegi

75 urterekin hil zen irailaren 19an Usurbilen



Sarrereren salmenta



SERVIKUTXA KULTXAZAINAK
943 00 12 00
www.kutxa.net



ANDOAINO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



bastero
KULTURGUNEA

URRIAK 7, Ostirala, 21:30h Auditorioan



Le Petit Theatre de Pain, Artedrama eta
Dejabu panpin laborategia "ERRAUTSAK"

Igor Elortza eta Unai Iturriagaren testuak
XI. Donostia antzerkia sariaren irabazlea

nubes

Aracaladanza

URRIAK 9, igandea, 17:00h Auditorioan

MAX 2011 saria haurren ikuskizun onenari.

MAX 2011 saria figuringile onenari, Elisa Sanz.

Haur eta gazteen Antzerki Nazionalaren saria 2010.

FETEN 2010 saria ikuskizun onenari.

Andoain Ekitaldiak

Informazio gehiago: 943.303.540 www.andoain.org

EGUZKILOREA ESKOLA - TAILERRA

HAUR, HELDU eta GAZTEENTZAT KURTZOAK
(Ingelesez egiteko aukera!)

ESKULANAK: esmalte repujatuak, metaleetan esmalteak, beiran margoak, portzelana, decoupage,
fieltroa, erretxina moldatzea... **DEKORAZIOA** eta errestaurazioa ...

BITXIGINTZA eta modazko osagarriak, apainketak zapatetan eta arropan, decoupage textila ...



INFORMAZIO GEHIAGO:

943 36 40 86 USURBIL

eguzkilorea20170@yahoo.es



KURTZOEN HASIERA: URRIAN EDO HILABETEKO LEHEN EGUNEAN



Amaia Irureta

Koordinatzailea

"Landuz ikasko duzu, erabiliz ikasko duzu"



Masengo Inanfumu

Koordinatzailea

"Ateak zabalduko dituzu. Kultura, harreman eta lan arloko ateak"



Mertxe Mugika


Koordinatzailea

"600 irakasle, 100 euskaltegi eta 30 urte baino gehiagoko esperientzia izango dituzu eskura"

aek-k

hitza ematen dizu

euskara ikasi eta euskaraz jakingo duzu



usurbil

ETUMETA AEK EUSKALTEGIA

Kale Nagusia, 45 behea. 20170 USURBIL

eman izena

azterketa ofizialak eta titulu homologatuak

943 37 20 01
usurbil@aek.org

